

# haur hezkuntza

**JARDUERA EGITARAUA 2008/2009 Iruñerriko Mankomunitatea**  
Arduraz jotatzeko Ingurumenerako Heziketa



paper birziklatuta

# Ingurumen Heziketarako Programa Iruñerriko Mankomunitatea

Chinchilla jenerala, 7 (atzealdea) 31002 Iruña **Ordutegia: 08:00etatik 14:30era.** **Kontsultak: 948 423 194 / 948 423 285**

**E-posta: jalzueta@mcp.es / mvital@mcp.es Faxa: 948 423 230**



**EGOITZA  
BERRIA**

**[www.mcp.es](http://www.mcp.es)**

**[http://www.mcp.es/educacion\\_ambiental/brote.htm](http://www.mcp.es/educacion_ambiental/brote.htm)**

## Zer helburu du?

**Hezkuntza komunitateak ingurumena-ri buruzko kontzientzia** eta horren inguruko interesa hartzea, baita egun dauden arazoetarako konponbideak bilatzeko zein etorkizunean agertu daitezkeenak saihesteko beharrezko ezagutzak, jarrerak, jokabideak, motibazioa eta nahia banaka zein taldeka eskuratzea ere.

*(Ingurumen heziketaren xedea, Belgradeko gutuna 1975).*

**Ingurumen esperientzia eta programak egin daitezela sustatzea,**

Iruñerriatik hurbileko ingurunean ezagutza eta analisi kritiko eta sormenezkoa helburu izanen dutenak.

**Baliabide materialak eta aholkularitza tekniko eta didaktikoa erraztea,** irakasleek zein ikasleek aipatu programak gauzatu eta euren informazio premiak bete ditzaten.

## Zer eduki lantzen dira?

**Uraren ziklo integrala /**

**Hornidura eta Saneamendua**

**Kontsumoa eta Hondakinak**

Birziklatzea eta Berreskuratzea

**Garraioa eta Mugikortasun iraunkorra**

**Iruñerriko Ibai Parkea**

**Ingurumen heziketa**

**Naturako eta hiriko ingurumena**

## Zer zerbitzu eskaintzen ditu?

- DOKUMENTAZIO ZENTROA: kontsulta eta mailegua
- AHOALKULARITZA TEKNIKO ETA DIDAKTIKOA: irakasle eta ikasleei zuzenduta
- MATERIAL DIDAKTIKOEN DISEINU, KOORDINAZIO ETA EDIZIOA
- SENSIBILIZAZIO KANPAINAK ESPARRUAN
- IKASTETXEAN HONDAKINAK KUDEATZEKO BALIABIDEAK: ikasgeletan pape-  
ra birziklatu eta berrerabiltzeko pape-  
rontziak eta erretiluak banatzea, papera  
eta pilak biltzeko edukiontzia, gaikako  
biltetaren eranskailuak, materia organi-  
koaren konpost-ontzia, eta abar.

## Jarduera programa

**Mankomunitateak kudeatutako instalazio eta espazioak bisitatzea.** Ibilbide gidatuak, instalazioak ongi ezagutzeko helburu zehatza dutenak: burutzen diren prozesuak, funtzionamendua eta kudeaketa, ingurumenaren aldeko jarrera eta jokabideei buruzko hausnarketa ahalbidetzen duten jarduera osagarriekin batera.

**Tailerrak.** Lan proposamen dinamiko eta parte-hartzaileak, programa bakoitzeko eduki nagusiei buruzkoak, norberaren arduraren erantzukizuna sustatzeko zein ingurumenaren aldeko jokabideak beregatzeko.

**Jardunaldiak.** Goizeko saioak, instalazio batera edo ibai parkera egindako bisitatik garatzen direnak; helburua eduki zehatzean sakontzea da, sentsibilizazioa azpimarratuz eta jokabide eta ohitura arduratsuak sortuz.

## Parte-hartze emaitzak 2007-2008 Iruñerriko ikastetxeak

	Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren Hezkuntza		GUZTIRA	
	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetx.	Ikasleak
<b>Ura</b>	48	2.847	59	6.994	40	3.652	<b>147</b>	<b>13.493</b>
<b>Hondakin.</b>	-	-	52	4.852	26	2.072	<b>78</b>	<b>6.924</b>
<b>Garraioa</b>	-	-	13	1.281	13	1.079	<b>26</b>	<b>1.079</b>
<b>Ibai Park.</b>	22	1.355	33	2.575	24	1.217	<b>79</b>	<b>5.147</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>3.853</b>	<b>64</b>	<b>11.986</b>	<b>43</b>	<b>6.538</b>	<b>111</b>	<b>22.377</b>

## Aurreko datuetan ez bildutako parte-hartze emaitzak

### ESKOLA KONPOSTAREN ASTEA

Erakusketari ibiltari batek parte hartu zuten lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako 15 ikastetxeak bisitatu zituen

Bisita didaktikoak erakusketara	57 bisita	14 ikastetxe	1245 ikasle
Mimoa, Kollins Clown taldearen eskutik	24 antzezpen	14 ikastetxe	2715 ikasle

### GAIKAKO PAPER-BILKETA 2007/2008

Iruñerriko 93 ikastetxek parte hartzeko konpromisoa sinatu zuten, eta, hartara, hurbilen zuten paper edukiontzia egokitu zitzaizkien. 201 edukiontzi gurpildun eman ziren, tarteko biltoki gisa erabiltzeko, papera garraiatzeko lana errazte aldera.



## Konposta eskolan

Teknika erraza eta ekologikoa da konposta egitea, baratzean, lorategian edo jantokian sortutako hondar organikoak baliatzen dituen mantenugaitan aberatsa den ongarria sortzeko. Lortutako konposta baratzerako erabili ahalko da berriro edota paketatuta egin daiteke (eskuz egindako zaku indibidualetan), esperientzia etxetik etxetik hedatzeko xedez.

Bost ikastetxe berri atxiki zitzaizkien ikasturtean zehar kanpainako estreinako urtean parte hartu zutenei.

**Konpost-ontzia jasotzeko edo esperientzia ikastetxe berrietan dinamizatzeko jarduerak egiteko eskaera telefonoz egin beharko da**



### KONPOST-ONTZIA ESKATZEA

#### Betebeharrak

- Proiektuaren dinamizatzaile bat, gutxienez, egotea ikastetxean.
- Eskola baratza eta/edo berdegune zabala zein eskola jantokia egotea.

#### Baliabideak

- Informazio bilera: nola egin erakutsiko da, eta parte-hartzaileek esperientziak elkartrukatuko dituzte.
- Segimendua egiteko bisita teknikoak
- Konposta egiteko gidaliburua.
- Konpost-ontzia (800 ml) jasoko da, eragiteko kiribila barne, eta honelako kita:
  - Hondakin organikoak biltzeko ontzia, konpost-zakua eta termometroa.
  - Birringailu elektrikoa (maileguan).
  - Bahea
  - Zakutxo indibidualak, konposta prest dagoenen haietan sartzeko.

#### Parte-hartzea Konpostaren Asteetan (2007/2008)

- Erakusketa ibiltariak lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako 15 ikastetxe bisitatu zituen
- 57 bisita didaktiko eta konpost joko egin ziren, eta 1245 ikaslek parte hartu zuten haietan.
- 24 mimo antzezpen egin ziren (Kollins Clown taldea) 16 ikastetxetan, eta 2715 ikaslek parte hartu zuten haietan.

## DVD berria ingelesez Ura zure laguna da

Urari buruzko heziketa programak, Mendillorriara bisitak eta *"Barrillo eta ura"* unitate didaktikoa biltzen dituenak, laguntzarako baliabide berria izanen du ikasgelan lantzeko.

*"Ura zure laguna da"* DVDa, orain arte gaztelaniaz zein euskaraz zegoena, ingelezkoa bertsioan dago orain.

euskaraz zegoena, ingelezkoa bertsioan dago orain.



## “Gaikako paper-bilketa ikastetxeetan” programa

Programak eskola esparruan papera biltzeko kudeaketarako beharrezko baliabide materialak jarri eta errazten dizkie ikastetxeei, baita ezarpen eta garapen prozesuan zehar aholkularitza tekniko egokia ere.

### Baliabideak

- “Jardunbide egokien gida: “Papera ikastetxean”.
- Edukiontzi gurgildunak (120 l), bat 250 ikasleko.
- Zaku berrerabilgarriak (120 l).
- Paperontziak eta erretiluak, ikasgelan berrerabiltzeko modukoak.
- Horma-irudi eta eranskailu identifikagarriak.
- Hurbilen dagoen kaleko edukiontzia egokitzea, estalkia finkatzeko sistema duena.

### Nola parte hartu programan

Programan parte hartu eta baliabideak eskatzeko, ikastetxeek **parte hartzeko urteko konpromiso orria berritu** eta bidali beharko dute (urte oro egin behar da), ezarritako epearen barruan. Aipatu konpromisoa, baita paper baliabideak eskatzeko fitxa ere, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza taldeari igorri zaio buletin honekin batera.



**2007/2008 ikasturtean**, Iruñerriko 93 ikastetxeek bidali zuten parte hartzeko konpromisoa, eta, hartara, hurbileneko paper edukiontzia ego-kitu zitzaizen. 201 edukiontzi gurgildun eman zitzaizkien, papera garraiatzeko lana errazte aldera.



## Mendillorriko ur-biltegi-tako pasealekua

Mendillorriko ur-biltegi-tako pasealekua gunea berdea da, segurua, hiritar guztiei zabalik, guztiok erabiltzeko modukoa.

Kilometro bateko luzera du, oinezkoendako, eta ondokoa dago bertan: hiru behatoki panoramiko, Iruñerriaren bista ederrak eskaintzen dituztenak, identifikatutako espezie botaniko ugari eta atseden gunea, haurrendako jolastokia duena.

“Ura” programa Mendillorri egiten dutenek baliabide osagarri hori gozatu ahalko dute aisialdian.





## Bisita

### “PARKEA ZENTZUMENEN BIDEZ”

**Norentzat:** 1. eta 2. mailak

**Tokia:**

- Atarrabiako jolas eremua (Donapea. Ibaiaren gaineko zaldaina).
- Barañaingo jolas eremua.

**Noiz:** Iraila, Urria  
Hirugarren hiruhilekoa.

**Noiz:** Asteartetik ostiralera.

**Ordutegia:**

Goizez: 09:45etik 11:45era

**Iraupena, gutxi gorabehera:** 2 h

**Parte-hartzaile gehieneko kop.:**

- 2 talde/ikasgela bisita bakoitzeko.
- 3 talde/ikasgela ostiraletan.

**Helburuak:**

- Iruñerriko Ibai Parkera ezagutzen hastea.
- Naturarengan errespetuz hurbiltzea, zentzumenen bidez.

**Edukiak:**

- Ibaia eta bere ingurunea.
- Paisaiaren natur eta giza elementuak.
- Informazioa jasotzea zentzumenen bidez.

**Jarduerak:**

- Ingurunea behatu eta aurkitzeko paseo laburra.
- Sentsibilizazio jolasak: *“Soinuak eta zaratak”*, *“Ikusi-makusi. Zer ikusi? Koloreak”*, *“Gauza arraroen bila”*, *“Mikro-txangoa lupekin”* eta *“Opari bat Andrés ahatearentzat”*.

Denbora librea hamaiketakoa jateko eta haur parkean jolateko.



# “URA: HORNIDURA” PROGRAMA 2º y 3º

## Bisita

### MENDILLORRIKO UR-BILTEGIAK + “Nondik dator edaten dugun ura?” JARDUERA

**Norentzat:** 2. eta 3. mailak

**Tokia:** Mendillorriko ur-biltegiak

**Noiz:** Iraila, urria eta martxotik aurrera.

**Noiz:** Astelehenetik ostiralera.

**Orduetgia:** Saioak 09:30ean eta 11:15ean.

**Parte-hartzaile gehieneko kop.:**

2 talde/ikasgela bisita bakoitzeko.

**Iraupena, gutxi gorabehera:** 1:30 h.

**Helburuak:**

- Tokian dauden baliabideak aprobetxatzea uraren garrantzia eta ura zaintzeko beharra baloratzeko.
- Urak egiten duen bidea ezagutzea, hartzen denetik kontsumitzen den arte, eta behar bezala erabiltzen ikastea.

**Edukiak:**

- Ingurunea ezagutzea.
- Ura edateko on bilakatzea.
- Urak txorrotaraino egiten duen bidea.
- Kontsumo arduratsuko ohitura eta erabilerak.

**Jarduerak:**

- Bisita eta entzunaldia ur-biltegi zaharretan.
- Bideoa: “Ura zure laguna da”.
- Jarduera: “Nondik dator edaten dugun ura?”. Maketa bat muntatzea.
- Denbora libre hamaiketako jateko, haur parkean jolasteko eta ur-biltegietatik paseatzeko.

**Parte hartzeko betebeharrak:**

Aldez aurreko prestaketa ikasgelan.



## Laguntzeko unitate didaktikoa

### “BARRILLO ETA URA”

(Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailak)

**Unitate didaktikoak ondokoa biltzen du:**

- Ikaslearen lan-koadernoak
- Irakaslearen gidaliburua.
- Uraren soinua biltzen dituen CDa.
- Horma-irudiak eta musika lanak.
- Margolan artistikoak.

**Ikaslearen koadernoak eskatzeko:**

Bisita ikasgelan prestatzeko ikasle bakoitzarentzako materiala eskatzeko, zehaztu zenbat koaderno behar diren **eskaera fitxan**.





# INGURUMEN HEZIKETARAKO PROGRAMAREN JARDUEREN LABURPENEA

Haur  
Hezkuntza

		1.	2.	3.
<b>IBAI PARKEA</b>	Bisita: <i>"Parkea zentzumenen bidez"</i> . Atarrabiako (Donapeako zaldaina) eta Barañaingo jolas eremuak	•	•	
<b>URA</b>	Bisita: Mendillorriko ur-biltegiak + <i>"Nondik dator edaten dugun ura"</i> jarduera		•	•

Lehen Hezkuntza

		1.	2.	3.	4.	5.	6.
<b>IBAI PARKEA</b>	Jardunaldia: <i>"Ezagutu parkearen bizia"</i> Atarrabiako (Donapeako zaldaina) eta Barañaingo jolas eremuak Jardunaldia: <i>"Paisaiak ibaiaren inguruan"</i> . La Nogalera jolas eremua Jardunaldia: <i>"Ibai bat, mila erabilera"</i> . Ezagutu Atarrabiako pilategia eta bere ingurua	•	•				
<b>URA</b>	Jardunaldia: <i>Zer egiten dut ura zaintzeko?</i> (Mendillorriko ur-biltegiak) Jardunaldia: <i>"Zikloa naturan eta lur azpiko urak"</i> (Artetako iturburua) Jardunaldia: <i>"Uraren zikloa hirian"</i> (Paseoa Eugitig + Urtasun + Mendillorriko Uren Etxea) Bisita: Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia Bisita: Eugiko urtegia + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak Bisita: Artetako iturburua + Interpretazio zentroa + Egillorko edateko uren araztegia Bisita: Artetako iturburua + <i>"Lur azpiko urak"</i> Interpretazio Zentroa Bisita: Arazuriko araztegia + <i>"Nik ez dut ura kutsatzen"</i> jarduera + Paseoa Argaraino Bisita: Mendillorriko Uren Etxea	•	•				
<b>HONDAKINAK</b>	Bisita: Gongorako H.H.T.Z. + Kontsumo arduratsuko jarduera Bisita: Gongorako H.H.T.Z. + Kontsumo arduratsuko jarduera + Garbigunea Tailerra ikasgelan: <i>"Nik kontsumitzen dut eta 3 R delakoak betetzen ditut"</i> Tailerra ikasgelan: <i>"Energiaz beteriko konpost-ontzia"</i> Tailerra ikasgelan: <i>"Nola egin paper birziklatua"</i> Jarduera: Zuhaitzak landatzea Ezkaba mendian				•		
<b>GARRAIOA</b>	Tailerra ikasgelan: <i>"Banoa eta banator"</i> Jarduera: <i>"Joan-etorri Eskualdeko Hiri Garraioan"</i>					•	•